

<p><b>AURRETIK IZENA EMATEKO ALDIA</b></p> <p><b>ABONATUENTZAKO ETA EZ-ABONATUENTZAKO</b></p> <p><b>Otsailaren 15etik</b> <b>Martxoaren 5era</b></p>	<p>Ikastaro batean edo gehiagotan izena eman nahi duten abonatuak eta ez-abonatuak aurretik izena eman beharko dute, interesa duen pertsona bakoitzeko Irunkiroleko <b>WEB</b>aren bidez <a href="http://www.irun.org/irunkirol">www.irun.org/irunkirol</a>, <b>H@Z</b> <b>terminaletan</b>, edo Azken Portu eta Artaleku Udal Kiroldegietako Harreran dagoen <b>KUTXAN</b> aurretik izena emateko orri bat sartuta.</p> <p><b>Astelehenetik ostiralera: 7:00etatik 22:00etara</b> <b>Larunbatetan: Artaleku 7:00etatik 21:00etara</b> <b>Azken Portu: 8:00etatik 22:00etara</b> <b>Igandetan: 9:00etatik 14:00etara</b></p>
<p><b>AURRETIKO HITZORDUAREKIN IZENA EMATEKO ZOZKETA</b></p> <p><b>Martxoaren 6an, 12:00etan</b></p> <p>1. zerrenda-abenduaren 31 baino lehen <b>ABONATU ZIRENAK</b></p> <p>2. zerrenda-abenduaren 31 baino geroago <b>ABONATU EGIN DIRENAK</b></p> <p>3. zerrenda- <b>EZ-ABONATUAK</b></p>	<p>Izen-emate bat aukeratuko da kutxatik ausaz (3 zerrendatarako balio izango du), eta horretatik aurrera, eta alfabetoaren hurrenkeran, <b>AURRETIKO HITZORDUA</b> (eguna eta ordua) emango zaio pertsona bakoitzari izena ematera etor dadin. (OHARRA: 2 pertsonak hitzordua ordu berean baldin badute eta biek ikastaro bereko azken tokia eskatzen badute, aurretiko hitzorduen zerrendan lehenago dagoen pertsonak izango du lehentasuna).</p>
<p><b>ZERRENDAK ERAKUSTEA,</b></p> <p><b>Martxoaren 6an, 15:00etatik aurrera</b></p>	<p>Zerrendak <a href="http://www.irun.org/irunkirol">www.irun.org/irunkirol</a> webean jarriko dira, eta bi kiroldegietako hall gunean.</p> <p>Dagokion txanda ez da bakarka jakinaraziko telefonoz.</p>
<p><b>IZEN-EMATEAK</b></p> <p><b>Martxoaren 11tik aurrera</b></p>	<p>a) <b>WEB</b> - zure hitzorduaren arabera edo inskripzioa egiteko garai librea hasi eta gero.</p> <p><b>EGIN BEHARREKO URRATSAK:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Gune honetara sartu: <a href="http://www.irun.org/SAC">www.irun.org/SAC</a></li> <li>Klikatu "identifikazioa"</li> <li>Norbere B@KQ Irun Txartelaren erreferentzia zenbakia, pasahitza eta koordinatuak sartu.</li> <li>Irunkirol atalean hautatu Udala kiroldegia - ikastaroetako inskripzioak.</li> <li>Jarraitu programaren pausoak eskaera sinatu arte.</li> <li>Ordaintzea <ul style="list-style-type: none"> <li>Abonua helbideratuta baduzu eta hilabeteko ordainagiria egin ez bada, kobrantza banku-helbideratzearen bitartez egingo da.</li> <li>Abonatu ez bada edo abonatu izanik izen ematea jada hilabeteko ordainagiria egin eta gero egiten badu, ordainketa-pasabidearen bitartez egingo da.</li> </ul> </li> </ol> <p>Igeriketa ikastaroetan, ikastaroa hasi baino lehen, bere maila egiaztatzen duen diploma aurkeztu beharko du kiroldegiko harreran .</p> <p>b) <b>AURREZ AURREKOA - hitzordura emandako egunean eta orduan joanez.</b> Izena eman behar duenaren <b>ABONATU TXARTELA</b> eramanda. Umeen nahiz helduen igeriketa-ikastaroetarako, gainera, <b>IGERIKETA DIPLOMA</b> ere aurkeztu beharko da.</p> <p><b>ABONATUEK HELBIDERATZE</b> bidez egingo dute ordainketa. <b>EZ ABONATUEK BANKU TXARTELAZ</b> egin ahal izango dute ordainketa. (Jarritako hitzordura agertu ezean, txanda galduko da).</p> <p>Hitz ordu garaian ikastaro bakar baten egin ahalko da izen ematea. Zure zerrendako hitz orduak amaitzean, izen emate gehiago egin ahalko dituzu web gunean eta hitz-ordurik gabeko garaia hastean, baita kiroldegietako harreretan ere.</p>
<p><b>IGERIKETA PROBA</b></p> <p><b>ARTALEKU eta AZKEN PORTU</b></p> <p><b>KIROLDEGIETAN</b></p> <p><b>Martxoaren 9an</b></p> <p><b>10:00etatik 12:00etara</b> <b>16:00etatik 17:00etara</b></p>	<p>Igeriketa-mailarik egiaztatzen ez duten guztiak igeri-mailaren proba bat egin beharko dute. Txanoa eta txankletak ekarri beharko dituzte (probara etorritako umeei <b>LAGUNTZAILE BAKAR BATEKIN</b> sartu ahal izango dira aldageletara, eta laguntzaileak txankletak jantzita eraman beharko ditu, <b>NAHITAEZ</b>).</p>
<p><b>IKASTAROEN BAIEZTAPENA</b></p> <p><b>Ikastaroa hasi baino 2 lanegun lehenago</b></p>	<p>Ikastaroetako behin betiko zerrendak kiroldegietako harreran eta <a href="http://www.irun.org/irunkirol">www.irun.org/irunkirol</a> atarian jarriko dira ikusgai.</p>

<b>IKASTAROETAN IZENA EMATEA</b>		Azken Portu eta Artaleku Kiroldegiek alde zuzenetik jakinaraziko dute izena emateko aldia. Aldi horretako egunetan egingo dira aurretiko izen-ematea, zozketa, berriz izen-emateak, abonatuentzako izen-ematea eta ez-abonatuentzako izen-ematea.
<b>KATEGORIA</b>	<b>HELDUAK</b>	Ikastaroetan parte hartzeko, gutxienez, <b>16 urte beteak</b> eduki behar dira, edo, bestela, urte horretan bete (Ikastaroan berariaz adierazten den kasuan izan ezik).
	<b>UMEAK</b>	Ikastaroetan parte hartzeko, gutxienez, <b>3 urte beteak</b> eduki behar dituzte edo kontratatutako urte horretan bete, eta 14 urte bete artekoak izango dira (Igeriketa-ikastaroetarako).
	<b>GAZTEAK</b>	(12-15 urte, biak barne): Adin horietarako ikastaroak.
	<b>HAURTZOAK</b>	Ikastaro hauetan parte hartzeko, gutxienez, <b>6 hilabete beteak</b> eduki behar dituzte ikastaroa hasi aurretik, eta 3 urte bete artekoak izango dira.
<b>IZEN-EMATEAK HARTZEN DITUEN ALDIAK</b>		<p><b>Abonatuak/k.</b> Ikastarogileak hiruhileko bakar baterako izena ematea berariaz eskatu ezean, ulertuko da izen emate hori denboraldia amaitu arte egiten dela, hau da, 2019ko ekainaren 21era arte. Jarduera utzi nahi izanez gero, Azken Portuko edo Artalekuko harreran jakinarazi beharko da, gutxienez hurrengo hiruhilekoa hasi baino 7 egun lehenago.</p> <p><b>Ez-abonatuak/k.</b> Izena ematea hiruhileko bakar baterako egingo da, eta ez du lehentasunik izango hurrengo hiruhilekoetarako. Hurrengo hiruhilekoetarako izena ematea hartarako ezarritako datetan egingo da, eta garaiz jakinaraziko dira.</p>
<b>IKASTAROGILE EZ-ABONATUAK</b>		Ikastarogile ez-abonatuak hurrengo hiruhilabetekoetarako ikastaroetarako erreserba egiteko eskubiderik ez dute izango. Hurrengo hiruhilabetekoetarako izen emate epea hasi baino lehenago abonatu egingo balira, hurrengo hiruhilabetekoetarako ikastaroetarako erreserba egiteko eskubidea ere izango lukete. * Ez da itzuliko abonatuak ikastaro-tasen eta ez-abonatuak ikastaro-tasen prezioan dagoen aldeari dagokion zenbatekoa, hiruhileko batean egoera aldatuz gero.
<b>IKASTAROEN INFORMAZIOA</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>* <b>HAURTZOENTZAKO IGERIKETA IKASTAROETAN, HELDU BATEK BAKARRIK</b> lagundu ahal izango die ikastarogileei.</li> <li>* Ikastarogileek gaitzen dituzten orduak ezin izango dira berreskuratu.</li> <li>* Ikastaro osatuetan, <b>ITXARONZERRENDA</b> egingo da. Zerrenda hori uneko hiruhilekoan egongo da indarrean.</li> <li>* Umeei aldageletan aldatzen laguntzeko, pertsona bakar bat izango da ikastarogile bakoitzeko. 7 urte-arte laguntzailearen aldagela erabiliko da eta 8 urtetik aurrera umearena. Umearen laguntzaileak txankletak jantzita eraman beharko ditu NAHITAEZ. Debekatuta dago kaleko oinetakoak eta haur-kotxeak erabiltzea aldageletan eta oin garbiko pasilloetan. Haur-kotxeak hartarako gaitutako lekuetan utziko dira.</li> <li>* <b>Igeriketa-ikastaroetan</b>, ikastaroak hasi eta <b>15 egun natural</b> igaro ondoren, ezin izango du ikastarogile gehiagok izena eman. Dena dela, interesatuari igeriketa-proba egin ondoren, teknikariak uste badu pertsona horrek ez lukeela ikastaroaren martxa atzeratuko, salbuespena egin daiteke.</li> <li>* <b>Askotariko ikastaro</b> horietan, ikastaroa hasi ondoren izena eman nahi bada, ikastaroaren maila zein den jakinaraziko zaio interesatuari, eta adieraziko zaio berak egokitu beharko duela mailara.</li> </ul>
<b>IKASTAROETAKO ITZULKETA</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>* Ikastaroa hasi denetik 7 lanegun igaro ondoren, ez da eskubiderik izango kontratatutako ikastaroaren tasaren zenbatekoa itzultzeko, behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kausengatik izan ezik. Alegia, heriotzengatik, beste udalerrri batera joateagatik (lanagatik eta ikasketengatik, edo bizilekua aldatzeagatik), istripu edo gaixotasun larriengatik, eta betiere Azken Portuko edo Artalekuko Kiroldegien aurrean eskatu eta egiaztatuta beharko dira.</li> <li>* Dirua itzultzeko eskubidea izango dute, ikastaroak dirauen aldiaren eskatzen bada. Gozatu gabeko hilabete osoen kargura egingo da itzulketa hori, egoera hori eragin duen gorabehera hasten den egunetik aurrera eta ikastaro amaiera arte kontatuta (Adib.: Apirila, maiatza eta ekaina hiruhileroko ikastaroan, apirilaren 20an utziz gero, maiatza eta ekaina itzuliko zaizkio. Maiatzaren 31ren ondoren utziz gero, ez da itzuliko ezer). Idatziz eskatu beharko da itzulketa (eskaera-orri orokorra).</li> </ul>
<p>Kiroldegiak eskubidea dauka, ezinbesteko kausa objektiboenengatik, ikastaro edo kanpaina bat aldi baterako edo behin betiko bertan behera uzteko. Kasu horretan, itzuli egingo dira gozatu gabeko ikastaro-zatiari dagozkion ordaindutako kopuruen zenbatekoak.</p> <p style="text-align: center;"><b>Ikastaroak apirilaren 1ean hasiko dira, eta ekainaren 21ean amaituko</b></p> <p>Kiroldegiak eskubidea dauka ikastaroen baldintzak salbuespenaz aldatzeko (egunak, orduak, tokiak, eta abar), baldin eta irakasle aldaketak, instalazioen erabilgarritasuna, izen-emate eskasak eta abar direla-eta ikastaro horiek eskaintzan programatutako ez beste inguruabar batzuetan eman behar badira.</p>		